

EGITARAUA

9:00 - 9:15 Ongietorria eta inskripzioen erregistroa

9:15 - 11:30 Hasierako hizketaldia

Ana Esther Ceceña Martorella: mexikar nazionalitatea duen ekonomialaria, geopolitikan aditua. Doktorea da Nazioarteko Harreman Ekonomikoetan, Parisko Unibertsitatean (Paris I-Sorbona); gaur egungo menderatze-eta erresistentzia-prozesuak aztertu, teorizatu eta kartografiatzeaz arduratzen den Geopolitikako Behatoki Latinoamerikarreko koordinatzailea da. Haren lanek askotariko gaiak jorratzen dituzte, hala nola baliabide naturalak, gizarte-mugimenduak, militarizazioa eta mundu-hegemonia. *Chiapas* aldizkariaren zuzendari izan zen 1994tik 2004ra. Ongi Bizi kontzeptuaren esparru teorikoaren eraikuntzan ari da lanean.

Itziar Gandarias Goikoetxea: Feminista, Bilbon jaioa, eta Gizarte Psikologian doktorea, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, honako tesi honekin: "Guztiok aske izan arte: emakume migratzaileen eta euskal emakumeen kolektiboen arteko artikulazioen eraikuntzaren esparruko topaketa, tentsio eta erronkak". Gaur egun, Deustuko Unibertsitateko Psikologia Saileko irakasle eta Gizartean Esku Hartzearen Psikologia Unibertsitate Masterraren zuzendaria da. Haren ikergai nagusiak hauek dira: gizarte-bazterketa eta generoa, metodologia feministak eta interseksionalitatearen teoria eta praktika. Bi haur txikiren ama da, eta, azkenaldian, haurrak hazten dihardu batez ere; ahal duenean, *Mujeres del mundo Babel*. *Munduko emakumeak* erakundearen parte hartzen du; 1999an jaio zen erakunde hori, eta hainbat kultura eta kontinentetatik datozen eta Bizkaian bizi diren emakumeek osatzen dute.

Moderatzailea: Jon González de Reparaz (Euskadiko GGKEen Koordinakundea)

11:30 - 12:00 Etenaldia kaferako

12:00 - 14:00 Mugimendu-sozialen eta GKEEn arteko artikulazio-esperientzia zehatzak

- **Martin Etxea (Mundubat).** Martin Etxea, Gallarta (Bizkaia) Mundubateko Gizarte Ekintza Sailaren egoitza-eta komunitate-proiektua da; beren egoera sozioekonomikoagatik edota nazioarteko babesa behar dutelako beren herrialdetik irten behar izan duten pertsonak bizi dira etxe horretan. **Hizlaria:** Eneko Gerrikabeitia Zenarrutzabeitia.
- **Plataforma Agua és vida (Enginyeria Sense Fronteres- Katalunia).** Jatorri askotako mugimenduek osatzen dute, eta Katalunian urraren politika eta kudeaketa integrala sektore publikoak egin dezan lortzea dute xede, bai eta gizarte zibilak horretan parte hartzea eta kontrolatzea ere, zerbitzuaren kalitatearen eta kalitate demokratikoaren berme gisa. **Hizlaria:** Aura Vidal Carrasco
- **Zer jaten dute gaizki jaten dutenek EAEn (Baladre koordinakundea).** Periferian bizi diren (bizirauten duten) kolektiboek beharrezko jotzen dute beren alternatibak eraikitzeke planteamendua egiten duen proposamen bat, bezerokeriatik, baldintzapeko egoeretatik eta karitatetik aldenduz eta merezi duen tokian jarriz elikadura; izan ere, oinarritzko eskubidea da, eta horretan ari gara lanean, landa-ingurunean eta hiri-ingurunean, helburu zehatz batekin: elikadura-burujabetza. **Hizlaria:** Isa Álvarez Vispo

Moderatzailea: Arantza Chacón Ormazabal (Zehar-Errefuxiatuak)

14:00 - 15:00 Mokaduak jateko tartea

15:00 - 16:30 Talde-lana

16:30 - 17:00 Landutakoa bateratzea osoko bilkuran

17:00 - 17:15 Azken iruzkinak, Ana Esther Ceceña Martorellaren eskutik

17:15 - 17:30 Jardunaldien ebaluaketa